

## KONPAINIAK

### NORI ZUZENDUA:

Berriki sortutako gazteei eta helduei zuzendutako ikuskizunak aurkezten dituzten antzerki-eta dantza-konpainia profesionalei, baldin eta ikuskizunok, jatorriaren arabera, gehienez ere data hauez geroztikoak badira:

- 1 Euskal konpainiak: 2020ko martxoaren 15a.
- 2 Estatuko konpainiak: 2020ko martxoaren 15a.
- 3 Atzerriko konpainiak: Estreinaldiak edo Espainian oso emanaldi gutxi izan dutenak.

**Oharra:** Estatuko eta atzerriko konpainien kasuan, aintzat hartuko dira estreinaldiak eta erakunderen batek bidaiak finantzatzea.

### NOLA PARTE HARTU:

#### Arte-proposamenen aurkezpena:

dFERIA-n parte hartzeko interesa duten konpainiek webgunean eman beharko dute izena: [www.dferia.eus](http://www.dferia.eus). Han aurkituko dute bete beharreko izen-emate fitxa, eta ikuskizunaren dossier osoa eta fitxa teknikoa erantsi beharko dizkiote, **uztailaren 22 eta irailaren 6a bitartean**. Antzerki-lanaren DVDa honako helbide honetara bidali beharko da:

#### **dFERIA DONOSTIA - SAN SEBASTIÁN**

Victoria Eugenia Antzokia  
Erregina Erregeordearen kalea, 8  
20003 Donostia / San Sebastián  
E-mail: [dferia@donostia.eus](mailto:dferia@donostia.eus)  
Webgunea: [www.dferia.eus](http://www.dferia.eus)

#### **dFERIA-K HAU ESKAINTZEN DIE HAUTATURIKO KONPAINIEI:**

- Akreditazioa eta dFERIAk irauten duen egunetarako ostatua konpainiaren ordezkari batentzat.
- Sarrera bat ordezkari akreditatu eta ikuskizun bakoitzeko, aurrez erreserba egin ondoren.
- Topagunerako sarbidea.
- Ikuskizunen emanaldirako, antolatzaileek bere gain hartzen dituzte cachearen % 50, beharrezko ostatu-gastuak (beharrezko balira), dieta eta antzoki bakoitzaren fitxa teknikoa.
- Konpainiak adierazitako zenbait programatzaile gonbidatzeko aukera.

#### **HAUTATURIKO KONPAINIAK dFERIAREKIN HARTZEN DUTEN KONPROMISOA:**

- Egindako salmenten kopurua hiru unetan jakinaraztera: feria amaitutakoan, hiru hilabetera eta, azkenik, sei hilabetera.
- Ikuskizuna ferian erosteagatik % 10eko deskontua egitera.

**Izen-emate orria dFERIAko webgunean dago eskuragarri: [www.dferia.eus](http://www.dferia.eus)**